



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko otsailaren 18a

13. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, Nafarroako Lan Terapeuten Elkargo Ofiziala sortzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sexu hezkuntza irakaskuntzan sartzeko zenbait ekintza gauzatu ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da larrialdi sismikoetarako plan bat egin dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Gobernu zentrala premiatzen da hondakinak tratatzeko instalazioetarako aurreikusitako pizgarriak berrazter ditzan. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sexu hezkuntzaren arloko zenbait ekintza gauzatuditzan emakumeari laguntzeko zentroetan. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lanbide heziketa euskaraz ikasteko dagoen eskaerari buruzko azterlan bat egin dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hirugarren adinekoentzako etxeko laguntza zerbitzuak bermatzeko zenbait ekintza gauza ditzan. Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak bazter utzia (7. or.).

—Adierazpen instituzionala, “Ibarretxe Plana” deritzona arbuiatzekoa. Osoko Bilkurak berretsia (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, “Lehenbizi herritarrak: informazioaren gizartean bizitzea eta lan egitea” liburuak planteatzen dituen erronkei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

—Galdera, negozio elektronikoei eta horren ondorioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

—Galdera, gaixotasun zeliakoaren gaineko azterlanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

—Galdera, gaixotasun aseguruaren Europako txartelari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

- Galdera, gaixotasun zeliakoaren azterlan epidemiologiko, kliniko eta genetikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna ([13. or.](#)).
- Galdera, justizia administrazioari zerbitzu publiko interaktiboak emateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna ([14. or.](#)).
- Galdera, landa eremuak informazioaren gizaratean sartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna ([15. or.](#)).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, Nafarroako Lan Terapeuten Elkargo Ofiziala sortzekoa.

OSOKO BILKURAK ONETSI

Nafarroako Parlamentuak, 2005eko otsailaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Lan Terapeuten Elkargo Ofiziala sortzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 143. artikkeluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2005eko otsailaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Foru Legea, Nafarroako Lan Terapeuten Elkargo Ofiziala sortzekoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru eraentza berrezarri eta hobetzeri buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak, 44.26 artikuluan, xedatzen du Nafarroak eskumen osoa duela elkargo ofizialen eta lanbide tituludunen jardueren arloetan, legeria orokorrari jarraikiz betiere.

Artikulu horretan xedaturikoaren babesean, Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartu dituen eskumenak ikusirik, Nafarroako lanbide elkargoei buruzko apirilaren 6ko 3/1998 Foru Legea eman zen. Abenduaren 18ko 375/2000 Foru Dekretuaren bidez garatu zen erregelamenduei dagokienez. Foru dekretu horren bidez Nafarroako lanbide elkargoei buruzko Foru Legea garatzeko Erregelamendua onetsi zen. Arautegi horren babesean, Nafarroako Lan Terapeuten Elkargoa sortzeko eskaera aurkeztu da. Eskaera hori foru erkidegoan egoitza duten profesionalik gehienek izenpetu dute. Izan ere, haiexek dira titulu ofizial horren jabe eta horretan aritzeko eskatu dute elkargoa sor dadila. Foru lege proiektu hau elkargo hori sortzeko izapidaketaren ondorio da.

Urriaren 26ko 1420/1990 Errege Dekretuaren bidez, lan terapiako diplomatuendako unibertsita-

te-titulu ofiziala eta titulu hori lortzeko ikasketen planetako jarraibide orokorrak ezarri ziren. Titulu horren helburua da prestakuntza teoriko-praktiko egokia ematea, gutxitutako edo galdutako gaitasun fisiko edo psikikoak indartu eta ordeztzeko eta jarduera fisiko nahiz psikikoak bideratu eta bultzatzeko.

Osasun-lanbideen antolamenduari buruzko azaroaren 21eko 44/2003 Legeak 2.2.b) artikuluan dioenez, diplomatura mailako osasun-lanbide tituluduna da lan terapia. Bestalde, 7.2.c) artikuluan lan terapeuten zeregintzat jotzen ditu, osasun-lanbide bakoitzari bere tituluaren eta gaitasun berezien arabera dagozkionez gain, gutxitutako edo galdutako gaitasun fisiko edo psikikoak indartu eta ordeztzeko, eta jarduera fisiko nahiz psikikoak bideratu eta bultzatzeko teknikak aplikatzea, bai eta horretarako lan-jarduerak gauzatzea ere.

Aipatu den arau eta lanbide-autonomia kontuan hartuz, komenigarritzat eta beharrezkotzat jo da lanbide-elkargo bat sortzea, Nafarroako Foru Komunitateko lan terapeutak bilduko dituen. Elkargo horrek lanbidea eta bazkideen lanbide-interesak ordezkatu eta aldeztuko ditu, gizartearen interes orokorrekin bat, eta, ezarritako legeen barrenean, lanbide horretan jarduteko manera ere antolatuko du.

Azaldutakoa ikusirik, eta Nafarroako Lan Terapeuten Elkargo Ofiziala sortzeko interes publikoko arrazoiak badirela kontuan harturik, foru lege honen bidez aipatu elkargoa sortzen da.

1. artikulua. Helburua eta ezaugarriak.

1. Nafarroako Lan Terapeuten Elkargo Ofiziala sortzen da; zuzenbide publikoko korporazioa da, bere nortasun juridikoa duena eta bere helburuak betetzeko eta bere eginkizunetan aritzeko gaitasun osoa.

2. Lanbide-elkargoak, foru lege honek indarra hartutakoan, nortasun juridikoa izanen du, eta,

gobernu organoak osatutakoan, jarduteko gaitasuna.

2. artikulua. Jarduteko eremua.

Nafarroako Lan Terapeuten Elkargo Ofizialaren jarduteko eremua Nafarroako Foru Komunitateko lurraldea izanen da.

3. artikulua. Kide izateko eskubideak.

Nafarroako Lan Terapeuten Elkargo Ofizialean sartzen ahal dira lan terapiako diplomatu titulua dutenak. Titulu hori lan terapiako diplomatuendako unibertsitate-titulua eta hura eskuratzeko ikasketen planetarako jarraibide orokor berariazkoak ezartzen dituen martxoaren 20ko 1420/1990 Errege Dekretuak arautzen du.

4. artikulua. Lanbide-jarduera.

Nafarroako Foru Komunitatean lan terapeuta lanbidean aritu ahal izateko derrigorrezkoa izanen da Nafarroako Lan Terapeuten Elkargo Ofizialeko kide izatea edo, bestela, beste lurralde bateko lan terapeuten elkargoko kide izan eta hori frogatzea.

5. artikulua. Arau erregulatzailak.

Nafarroako Lan Terapeuten Elkargo Ofiziala lanbide-elkargoen legeriak, bere estatutuek eta, halakorik balego, barne araubideko erregelamenduak arautuko dute.

Xedapen iragankor bakarra. Elkargoaren estatutuak.

1. Nafarroako Lan Terapeuten Elkarateak, foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, Nafarroako Foru Komunitateko Lan Terapeuten Elkargo Ofizialaren behin-behineko estatutuak onetsi beharko ditu, honako hauek arautzeko:

a) Elkargoko kide izateko baldintzak; elkargoaren eratze batzarrean, kide izanda parte hartu ahal izanen da.

b) Eratze batzarrerako deia nola egin eta batzarra nola eraman. Deialdi hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

2. Nafarroako Lan Terapeuten Elkargo Ofizialaren eratze batzarrak egin beharko du:

a) Elkargoko behin betiko estatutuak onetsi.

b) Elkargoko gobernu organoetako kideak hautatu.

3. Elkargoko behin betiko estatutuak –behin onetsita– eta eratze batzarraren aktaren ziurtagiria Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentura igorriko dira eta haren titularrak, Departamentuko organo eskudunak legezketasuna berretsi ondotik, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko du.

Azken xedapen bakarra. Indarrean sartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sexu hezkuntza irakaskuntzan sartzeko zenbait ekintza gauzatu ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Osoko Bilkurak, 2005eko otsailaren 10ean egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sexu hezkuntza irakaskuntzan sartzeko zenbait ekintza gauzatu ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko otsailaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sexu hezkuntza irakaskuntzan sartzeko zenbait ekintza gauzatu ditzan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondokoak egin ditzan:

a) Hezkuntzarekin, osasunarekin eta gizarte ongizatearekin zerikusia duten baliabide publikoen koordinazioa hobetu; hartara, egungo egoera aztertu eta ebaluatuko duen lan-talde bat sortuko da.

b) Irakasleei arestian adierazitakoa bururaino eramanez ahal izateko baliabideak eman.

c) Profesionalak, guraso elkarteak eta gizartetaldeak prestatu eta horiei aholku emateko programak nahiz erkidegoko esku-hartze programak mantendu eta bultzatu.

d) Hedabideetan esku hartu, gizon eta emakumeen estereotipoak eta euren arteko harreman mota aldatzeko.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da larrialdi sismikoetarako plan bat egin dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Legebiltzarrak, 2005eko otsailaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztutako mozioa, Nafarroako Gobernua larrialdi sismikoetarako plan bat egin dezan premiatzen duena, baztertzea. Mozio hori 2004ko urriaren 25eko 88.

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko otsailaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Gobernu zentrala premiatzen da hondakinak tratatzeko instalazioetarako aurreikusitako pizgarriak berrazter ditzan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Gobernu zentrala premiatzen da hondakinak tratatzeko instalazioetarako aurreikusitako pizgarriak berrazter ditzan".

Legebiltzarrak, 2005eko otsailaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztu-

tako mozioa baztertzea. Mozio hori 2004ko azaroaren 2ko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko otsailaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sexu hezkuntzaren arloko zenbait ekintza gauzatuditzan emakumeari laguntzeko zentroetan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sexu hezkuntzaren arloko zenbait ekintza gauzatuditzan emakumeari laguntzeko zentroetan".

Legebiltzarrak, 2005eko otsailaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztu-

tako mozioa baztertzea. Mozio hori 2004ko azaroaren 2ko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko otsailaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lanbide heziketa euskaraz ikasteko dagoen eskaerari buruzko azterlan bat egin dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lanbide heziketa euskaraz ikasteko dagoen eskaerari buruzko azterlan bat egin dezan".

Legebiltzarrak, 2005eko otsailaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztu-

tako mozioa baztertzea. Mozio hori 2004ko azaroaren 8ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko otsailaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hirugarren adinekoentzako etxeko laguntza zerbitzuak bermatzeko zenbait ekin-tza gauza ditzan.

GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hirugarren adinekoentzako etxeko laguntza zerbitzuak bermatzeko zenbait ekin-tza gauza ditzan."

Nafarroako Parlamentuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak, 2005eko otsailaren

11n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertea. Mozio hori 2004ko azaroaren 8ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko otsailaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Adierazpen instituzionala, "Ibarretxe Plana" deritzona arbuiatzekoa.

OSOKO BILKURAK BERRETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2005eko otsailaren 10ean egindako bileran, Ele-dunen Batzarrak 2005eko urtarrilaren 11n egindako bilkuran onetsi zuen adierazpen instituzionala, "Ibarretxe Plana" deritzona arbuiatzekoa, berres-tea erabaki zuen. Hona testua:

«1. Nafarroako Parlamentuak Euskadiko Erkidegoaren Estatutu politikoa eraberritzeko proposa-mena arbuiatzen du, adostasun instituzionala hausten duelako, elkarrizketa politikoa eteten due-lako, hau da, autonomia erkidegoetako estatutuak eta Espainiako Konstituzioa aldatzeko bidea eta alde bakarreko proposamena delako, baztertzaila eta Estatuko erakundeak derrigortzen dituena.

2. Nafarroako Parlamentuak Euskadiko Erkidegoaren Estatutu politikoa eraberritzeko proposa-mena arbuiatzen du, Nafarroari buruz egiten dituen aipamenak direla eta; izan ere, gure autogobernu gaitasunean eginiko injerentzia onar-tezinak dira, Nafarroaren proiektu politikoa ez dute errespetatzen, foruaren aurkakoak dira Nafarroa-ren ahalmenak urratzen dituztelako, eta Nafarroa-

ko herriari baino ez dagokiona antolatzen saiatzen dira; era berean, Nafarroako Foru Komunitateko errealitate instituzionalean eginiko esku-sartze onartezina ere badira.

3. Nafarroako Parlamentuak Euskadiko Erkidegoaren Estatutu politikoa eraberritzeko proposa-mena arbuiatzen du, izena "elkarbizitzarako itun politikoa berria" badu ere, oro har Espainian herritarren artean eta gizartean dagoen adostasuna hausten baitu eta, euskal gizartean bereziki, enfrentamenduak eta zatiketak bultzatzen baititu.

4. Nafarroako Parlamentuak berresten du Nafarroako herriaren gehiengo erabatekoaren borondatea dela foru erkidego berezkoa eta bereiz-ta osatzea, zatiezina eta Espainiako nazioan sar-tua, solidarioa, demokratikoa, eta herritarren ongi-zatea, askatasuna eta segurtasuna helburu dituen.»

Pamplona, 14 de febrero de 2005

El Presidente: Rafael Gurrea Induráin

F saila:
GALDERAK

Galdera, “Lehenbizi herritarrak: informazioaren gizartean bizitzea eta lan egitea” liburuak planteatzen dituen erronkei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak “Lehenbizi herritarrak: informazioaren gizartean bizitzea eta lan egitea” liburuak planteatzen dituen erronkei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 24ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du “Lehenbizi herritarrak: informazioaren gizartean bizitzea eta lan egitea” liburuak planteatzen dituen erronkei buruz. Hona hemen Gizarte ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1- Departamentuan neurririk ezarri al da bertako zerbitzu publikoak “on line” eskaintzeko?

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak bide horretatik jotzeko asmoa du eta, horren haritik, Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusiarekin elkarlanean ari da Foru Administrazioa modernizatzeko planaren garapen lanetan, baita informazioaren gizartea eta telekomunikazioak Nafarroako Foru Komunitatean sustatzeko 2. plana prestatzen ere.

2- Berriazko neurriak planteatu al dira etorkinek Interneterako sarbidea izan dezaten? Zein dira?

Etorkinek sarbidea dute Gizarte ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak Interneten bidez ematen dituen zerbitzu guztietara, gainerako herritarren baldintza beretan.

3- Zein neurri ezarri da, halakorik badago, edo ezarri nahi dira ezgaituek informazioaren teknologien arloan parte har dezaten sustatzeko?

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua ezgaitasunak dituzten pertsonei laguntza emateko planari buruzko aurreproiektuaren zirriborroa prestatzen ari da, eta bertan, gai honi dagokionez, ondoko helburuak eta horiek lortzeko neurriak jasotzen dira:

“MENDEKO PERTSONEI ARRETA EMATEA

Ezgaitasunak dituzten pertsonei eta haien familiei ezgaitasunari buruzko informazio azkarra eskaintzea, ezgaitasunak dituzten pertsonen berriazko behar zehatzetara egokitua.

- Familiei informazioa eta laguntza emateko eginkizunak sendotu eta indartuko dira, gizarte zerbitzuen, osasun sistemaren, hezkuntza sistemaren eta Nafarroako administrazio publikoen informazio unitateen bitartez.

- Aldiro baliabideen, zerbitzuen, zerbitzuak ematen dituzten entitateen eta GKEen gida pres-tatu, hedatu eta eguneratuko da. Bertan Nafarroan ezgaitasunei buruz dagoen informazio baliagarri guztia bildu eta katalogatuko da.

- Informazio eta aholkularitza zerbitzuak optimizatuko dira, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan oinarritutako euskarrietan. Zehazki, lotura baliagarrienak jasoko dituen web orri bat jarriko da Nafarroako Atarian, eta haren diseinua eta edukiak irisgarriak izan daitezen arauak eta irizpideak erabat errespetatuko dira (WAI ekimena).

IKERKETA ETA GARAPENA

Teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak ahalik eta hobekien baliatu, ezgaitasunak dituzten pertsonek autonomia handiagoa eta gizartean eta komunitatean parte-hartze hobea izan dezaten.

- Nazioarteko, Europako, nazioko eta erkidego-etako erakundeek emandako arau, plan eta gomendioen jarraipena eta azterketa eginen da, haiei buruzko ezagutza eta haien aplikazioaren garapen maila sendotzen laguntzeko. Lan horren emaitza ezgaitasunak dituzten pertsonen eta haiek ordezkatzeko dituzten entitateen eskura jarriko da, web orri baten bidez.

- Erabiltzaile, teknikari, elkarte, enpresaburu eta ikertzaileei zuzendutako informazio mekanismoak bultzatu eta koordinatuko dira, errehabilitazioaren teknologien arloan edo ezgaitasunak dituzten pertsonen laguntzeko teknologien arloko merkaturan dauden produktuak ezagutarazteko.

- “Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako eta Zaharrentzako I+G+B Liburu Zurian” jasotako familia edo azpisektore teknologikoen sailkapena hedatuko da, bere erabilera normalizatzeko xedearekin.

- CEAPATEkin hitzarmen bat egiteko aukera aztertuko da, diseinu unibertsalaren eta irisgarritasunaren arloko ikerketa, prestakuntza, hedatzea eta aholkularitza sustatzeko.

Era berean, Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusiarekin elkarlanean azterketa bat egiten hasi gara, Nafarroako Gobernuaren Atariaren irisgarritasuna WAI-WCAG-ren (World Wide Consortium-en Web Accesibility Initiative) irizpide-etara egokitzeko.”

4.- Zein koordinazio neurri, Europako programak barne, erabiltzen dira edo erabili nahi dira “bazterkeria digitalaren” aurkako politikak koordinatzeko? Ba al dago planik edo programarik premia bereziak dituzten pertsonen enplegu bat lortzeko aukera handiagoak izan ditzaten? Hala ez bada, elkarrekin edo bestelako entitateekin lankidetzan ari al da departamentua alderdi horiek hobetzeko? Zein eta zein sistema erabilita?

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua parte hartzen ari da Informazioaren gizartea eta telekomunikazioak Nafarroako Foru Komunitatean sustatzeko 2. planaren prestatze lanetan. Departamentuak nahi du informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloan sustatzen ari den ekimenak plan horretan jaso daitezkeen. Era

berean, aurrekontuen arabera planteatu daitezkeen ekimen berriak jasoko dira plan horretan.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua Gobernuko departamentu guztiekin elkarlanean ari da, ezgaitasunak dituzten pertsonak laneratzeko xedearekin. Horrekin lotuta, nabarmendu behar da ezgaitasunak dituzten pertsonen lehentasuna izan dutela Toki Administrazio Departamentuko Infolocal 012 proiektuan lanean aritzea.

Bestalde, zaharrei arreta emateari dagokionez, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutua erretiratuaren elkarrekin eta klubekin elkarlanean ari da teknologia berriekin loturiko gaietan. Zehazki, 2004an dirulaguntzak eman zaizkie ondoko entitateei, “Erretiratu eta pentsionistentzako Informazioaren Alfabetatzerako Plana” izeneko kontusailaren kontura:

Entitatea	Herria	Zenbatekoa
San Roman jubilatuen elkarte	Arre	2.136,00
Ega jubilatuen elkarte	Lilzarra	2.400,00
Uniate fundazioa	Iruñea	72.121,44
San Andres jubilatuen elkarte	Atarrabia	1.349,00
Guztira		78.006,44

5.- Zure departamentuak prestatu al ditu, edo beste alderen batek halakorik eskatu al dizue (hala bada, zeinek), web publikoetarako orientabiderik webak erabiltzeko modukoak izan daitezkeen.

Azaldu dudan moduan, ezgaitasunak dituzten pertsonen laguntza emateko planaren barruan azterketa bat egiten hasi gara, Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusiarekin elkarlanean, Nafarroako Gobernuaren Atariaren irisgarritasuna WAI-WCAG-en (World Wide Consortium-eko Web Accesibility Initiative) irizpide-etara egokitzeko.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko ekainaren 9an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, negozio elektronikoei eta horren ondorioei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak negozio elektronikoei eta horren ondorioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 24ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo andreak galdera egin du negozio elektronikoen gailurrari eta horren ondorioei buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna:

1. galdera:

Lehen galderak bi gai erabat desberdin aipatzen ditu. Lehenengoari dagokionez, eta galderan daturik ematen ez denez, ez dakigu zein den aipatzen duen "gailurra", beraz ezinezkoa da galderari erantzutea.

Bigarren galderari dagokionez, esan behar da Nafarroako 2. plan teknologikoa egin zenean Informazioaren eta komunikazioen teknologietako hainbat adituk parte hartu zutela eta haien ondorioak kontuan hartu zirela plana prestatzeko.

Aldi berean, Agencia Navarra de Innovación y Tecnología erakundean "informazioaren eta komunikazioaren teknologien mahai" batzuk osatu dira, eta mahai horiek informazioaren eta komunikazioaren teknologien sektorearen egoerari eta enpresen sektorean izanen duen eraginari buruzko diagnostikoa egin dute. Mahai horien lanaren ondorioz, une honetan sektore horren azterlan estrategikoa egiten ari da. Azterlan hori aurtengo hirugarren hiruhilekoan bukatuko da.

2. galdera:

Azaldutakoaz gain, 2002 eta 2003. urteetan PRAINA Europako ekimenaren (Nafarroan Informazioaren gizarterako ekintza berritzaileak egiteko eskualdeko programa) Avanypyme, Telemarket eta Serviweb ekintzak bete dira.

3. galdera:

Ez da onartzekoa, gai horiek ez baitira departamentu honen ardura.

4. galdera:

Lankidetzaharremanak ohikoak dira elkarrekin jarduerak diseinatzeko. Une honetan Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusia hasi da informazioaren gizarterako bigarren plana prestatzeko lanetan, eta horretarako Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuari laguntza eskatu dio jadanik.

5. galdera:

Garrantzitsua da esatea galderak aipatzen duen gaia ez dela bere misioa, zeina "kalitatearen kultura" zabaltzea baita.

6 eta 10. galderak:

Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra (CEIN) sozietate publikoaren bitartez, PRAINA programaren ekintzei jarraipena emanen dien programa bat garatuko da.

Halaber, lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzei buruzko foru aginduan informazioaren eta komunikazioaren teknologien atal bat jasotzen da, eta hori CEINek egindakoaren osagarri izanen da.

Prestakuntza etengabearen eredu aplikazio horizontaleko kontzeptu bat da eta prestakuntza ekintza guztiak hartzen ditu bere baitan. Horrenbestez, ez da informazioaren teknologiek loturiko ikastaroetara mugatzen.

7. galdera:

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak 286.125 euroko aurrekontua jaso zuen 2002ko ekitaldian teknologia berriekin loturiko ikastaroak emateko. Hona hemen horietako batzuk:

– Prestakuntzarako multimedia aplikazioen sistema, 315 ordu.

– Punto-net plataforman aplikazioak garatzea, 310 ordu.

– Multimedia aplikazioen diseinua, 275 ordu.

– Sistemen teknikaria, 700 ordu.

– Industria diseinuari buruzko goi mailako ikastaroa, 400 ordu.

– Programazio ikastaroa, 500 ordu.

2003an 7 prestakuntza ekintza garatu ziren, 2800 ordu guztira, eta ikastaro mota horren eskara osoari erantzun zitzaion.

8 eta 9. galderak:

Programa eta jarduera guztien helburua da teknologia horiek pixkana eta erabat enpresetan sartzea, lehiakortasuna hobetze aldera.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko ekainaren 3an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontselaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, gaixotasun zeliakoaren gaineko azterlanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak gaixotasun zeliakoaren gaineko azterlanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 24ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du gaixotasun zeliakoaren gaineko azterlanari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Kontseilariaren arabera zenbateko epea behar da gaur goizean onetsitako mozioan aipatzen den azterlana egiteko?

Egiten ari diren azkerketek helduak ere kontuan hartzen dituzte, eta ez bakarrik haurrak, orain arte egiten zen bezala. Aurreikuspenen arabera, azterlanak 2005ean zehar bukatuko dira.

2.- Zein konpromiso hartu behar du Nafarroako Gobernuak gaixotasun zeliakoa pairatzen duten pertsonen behar diren laguntza emateko?

Pentsatzekoa denez, azterlan horren ondorioetatik atera ahalko ditugu gaixotasun hori pairatzen duten pertsonen laguntzeko har daitezkeen konpromisoak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko ekainaren 9an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, gaixotasun aseguruaren Europako txartelari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak gaixotasun aseguruaren Europako txartelari gaixotasun aseguruaren Europako txartelari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 24ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du gaixotasun aseguruaren Europako txartelari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Gaixotasun-aseguruaren Europako txartela udaberri honetan aurkeztea zegoen aurreikusita. Aurkeztu al da txartel hori? Hala izanez gero, zer jarduketa aurreikusi ditu departamentuak?

Gaixotasun-aseguruaren Europako txartela aipatzen duzunean Europako osasun txartelari buruz ari zarela ulertzen dut. Txartel horren xedea da titularrek osasun zerbitzu publikoak jaso ahal izatea aldi baterako beren herritik kanpo daudenean (EBko herrialdeetan eta Europako beste batzuetan, hala nola Suitza eta Islandia). Gehienez urtebeterako balio du. Praktikan txartel hori orain arte paper euskarrian ematen ziren eta xede berbera zuten formulario batzuen ordez (E110, E111, E119 eta E128) ezarri da. Dena den, txartel horrekin zerikusia duten gaiak ez dira departamentu honen eskumenekoak.

Zer egoeratan dago laguntza puntuen artean (ospitaleen gehi osasun-etxeen, laborategien eta etxebizitzien artean) ezarri beharreko osasun informazioko sareen ezarpena?

Egoera honakoa da: Iruñeko, Tuterako eta Lizarrako ospitaleguneei "sare" berekia dute. Sare horiek elkarren artean konektatuta daude; beraz, posible da –eta hala egin ohi da beharrezkoa denean–, gaixoei eman beharreko laguntzari buruzko alderdiak kontsultatzea.

Oinarrizko osasun barrutiei dagokienez, osasun zentroetako eta/edo kontsultategietan arreta

puntuen % 75 hartzen dituen "sare" hedatu da, hainbat motatako ADSL lineen bitartez edo

Nafarroako Gobernuaren sare korporatiboaren bidez. Egoera berdintsua da emakumeari laguntzeko zentroetan eta adimen-osasuneko etxeetan.

Ospitaleetako edo ospitaleez kanpoko "sare" horien xedea da hainbat aplikazioren bidez herritarra osasun zentroekin harremanetan jartzea, edozein arreta mailatan. Gaur egun gaixoari hitzordua ematen zaio oinarrizko osasun laguntzatik laguntza espezializaturako, berariazko programetarako, proba osagarriak egiteko eta abar. Jar-duera horietako asko ohikoak dira ia osasun sare publiko osoan.

Era berean, sarearen bidez ere laborategietatik emaitzak bidaltzen dira, oinarrizko osasun laguntzatik edo laguntza espezializatutik eskatuta, gaixoaren historia klinikoan txertatzen dira, etab.

Zer fasetan dago nafarrei osasun zerbitzuak linean ematearena (adibidez: historia kliniko elektronikoa, telekontsulta, gastuen itzultze elektronikoa, etab.)?

Gaur egun, 32 oinarrizko osasun barruti erabat informatizaturik daude; horrek osasun langileen % 71,5 eta herritarren %76,32 hartzen ditu. Laborategiko probak egiteko eskaerak normalean automatikoki egiten dira 21 osasun zentroetatik. Gainerakoetan inprimakien edo bolanteen bidez egiten da.

Oinarrizko osasun laguntzan, eskatutako laborategi-txostenak modu informatizatuan bidaltzen zaizkie medikuei, balidatu bezain laster (3 modalitate). Alta emateko, kanpo kontsultetako eta larrialdietako txosten klinikoak gaixoaren historia klinikoan txertatzen dira 32 oinarrizko osasun barrutitan. Beste lau oinarrizko osasun barrutitan partzialki informatizatuzeko zain daude (harreraren alderdi guztiak jada informatizatuta daude). Gainerako oinarrizko barrutiak (herritarren % 24 gutxi gorabehera) informatizatzeko prozesuan daude. Gaur egun, laguntza espezializatuaren arloko historia klinikoan erregistratzen dira sareko ospitale guztietan (Bideko Ama Birjina Ospitalea, Nafarroako Ospitalea, Tuterako Reina Sofía Ospitalea, Lizarrako García Orcoyen Ospitalea eta Ubarmin Klinikak) arreta jaso zuten gaixoen osasun-gorabeherak, baita kanpo kontsultetan (General Solchaga anbulatorioa eta Vianako Printzea kanpo kontsultetarako zentroa) izandakoak ere. Emakumeari

laguntzeko zentroetan (ez guztietan, baina urte amaierarako guztietan egitea da gure asmoa) alta emateko txostenak eta kontsultetako eta larrialdietako txostenak ere egiten dira. Azterketa osagarri ez gain, (adibidez, Bideko Ama Birjina Ospitaleko eta Nafarroako Ospitaleko Kardiologia, Neurofisiologia, Medikuntza Nuklearra, etab.), historia kliniko informatizatua erabiliz informatzen da edota txostenak (laborategikoak) historia klinikoan txertatzen dira.

Zainketen eta laguntzaren jarraipena sarean interkonexio batetik abiatuta antolatzen da: Oinarritzko laguntzatik medikuak alta eta kontsultei buruzko txostenak eta laborategikoak jasotzen ditu (laster, baita radiologiakoak ere). Aldi berean gaixoaren laguntza espezializatuko historia eskura dezake, eta alderantziz. Oinarritzko laguntzako zentroetan gaixoei espezialistengana joateko hitzordua zuzenean ematen zaie, eta hitzordu mota desberdinak daude: lehentasunezkoak, presakoak, normalak, prozesu bereziengatikoak...

Osasun zerbitzuak linean ematearen arloan, zer-nolako parte-hartzea daukate Informazioaren Gizarterako Zuzendaritzak eta Oponatelek estrategiak eta azpiegiturak aplikatzeari eta taxutzeari

dagokionez? Ez badute parte hartzen, nork egiten du lan hori?

Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusiak azpiegiturak eta sistemak zehazten ditu, baita Osasun Departamentuarentzat ere, dituen beharrak eta lehentasunak kontuan hartuta. Oponatelek berriz, Osasun Departamentutik eskatzen zaizkion proiektuak diseinatu eta gauzatzen ditu telekomunikazioen arloan.

Zenbateraino pentsatu du departamentuak eEurope 2005 ekintza planean parte hartzea edo ez hartzea? Egin al du ekintzarik eEurope 2002 planean?

Departamentuak eEurope 2005 ekintza planean parte hartzeko asmoa du, Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusiak laguntza eskatzen dion heinean.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko ekainaren 8an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, gaixotasun zeliakoaren azterlan epidemiologiko, kliniko eta genetikoki buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak gaixotasun zeliakoaren azterlan epidemiologiko, kliniko eta genetikoki buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 24ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du gaixotasun zeliakoaren azterlan epidemiologiko, kliniko eta genetikoki buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- "Gaixotasun zeliakoari buruzko azterlan epidemiologikoa, klinikoa eta genetikoa. Nafarroa" izenburuko lana, Bideko Ama Birjina Ospitaleak eginikoa.

Aipatu azterlana jada bukatuta dago. Anales del Sistema Sanitario de Navarra aldizkarian argitaratu zen (2002ko 25. liburukia, 3. zenbakia, iraila-abendua). Azterlan horrek Nafarroako haurrengan gaixotasunak duen prebalentzia aztertzen du.

2.- Osasun Departamentuak azterlanaren emaitzen arabera egindako urratsak.

Azterketa herritar guztiei zabaltzea erabaki zen, gaixotasunak helduengan ere duen prebalentzia zehazte aldera.

3.- Azterlan horren ondorioz, gaixo zeliakoei aplikatu zaizkien neurriak, haien bizi kalitatea hobetze aldera.

Funtsezko neurria gaixotasunaren diagnostiko goiztiarra da. Horrela gaixoen bizi kalitateak hobera egiten du nabarmen, dietatik glutena baztertu baitezakete. Diagnostiko metodo serologikoen erabilera, biopsia osagarri dutela, diagnostikoa hobetzea ahalbidetu dute, bai goiztiartasunari, bai zehaztasunari dagokienez.

4.-Pertsona horiei aplikatzekoak zaizkien neurriak, aplikatu gabe daudenak. Haiek abian jartzeko aurreikuspenak.

Oraindik egiten ari diren bi azterlan amaitu ondoren aplikatuko dira aplikatu gabe dauden neurriak .

Azterlan horietako bat 1999an hasi zen eta bi abortu edo gehiago izandako emakume haurdunak aztertu ziren. Azterlan horretan, lehenik eta behin odol adierazleak zehaztu ziren eta ondoren,

nahi zuenari hesteetako biopsia egin zitzaion, azterketa anatomopatologikoa egiteko eta korrelazioa ikusteko.

Lana azken fasean dago, datuen elaborazioa eta tratamendua besterik ez da falta.

Bigarren azterlana ere 1999an hasi zen, eta gaixo zeliakoen senideengan gaixotasuna haute-matean oinarritzen da. Screening lan mugatua da, eta hasteko Nafarroako 200 familia hartu dira. Oraindik ez da bukatu.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko ekainaren 9an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, justizia administrazioari zerbitzu publiko interaktiboak emateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak justizia administrazioari zerbitzu publiko interaktiboak emateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 24ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 11n

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du justizia administrazioari zerbitzu publiko interaktiboak emateari buruz. Hona hemen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1. Zein jarduketara aurreikusi ditu departamentuak, justizia administrazioak zerbitzu publiko interaktiboak izan ditzan?

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak, Foru Administrazioa modernizatzeko planaren garapenaren ildotik, ematen dituen zerbi-

tzuak Interneten bidez pixkana eskaintzeko asmoa du. Horri jarraikiz, web gune bat jartzeko lanean ari gara, Nafarroako Gobernuak atarian Nafarroako justizia gaiei eta zerbitzuei buruzkoa.

2. Zein harreman daude Departamentuaren, Informazioaren Gizartearen Zuzendaritzaren eta Justizia Ministerioaren artean, IKTak ezartzeko, batetik epaitegietan, eta bestetik departamentuan?

Galderan aipatzen diren erakunde eta administrazio unitateen arteko harremanak oso onak dira.

3. Planteatu al da Foruzaingoan zibersegurtasunaren arlorako unitateren bat sortzea?

Foruzaingoaren berrantolaketa ez da zehazki aurreikusten zibersegurtasunaren arlorako unitaterik.

4. Aztertu al da segurtasunaren kultura bat eraikitzeko beharra, informazioaren eta komunikazioen produktuak lantzeko eta garatzeko?

Jakina denez, Nafarroako Gobernuak duela gutxi onetsi du Nafarroako Gobernuak informazioaren segurtasunerako plana. Plan horren bitartez Justizia Zuzendaritza Nagusiak arlo honetan ezarritako zeuzkan lan ildoak indartuko dira. Horrek guz-

tiak laguntzen du galderan aipatzen den "segurtasunaren kultura" sor dadin.

5. Egin al du departamentuak analisirik edo azterlanik zerbitzu publikoen artean transmititutako informazioaren segurtasuna handitzeko?

Lehen esan bezala, arlo horretako erreferentzia markoa Informazioaren segurtasunerako plana eta plan horretan oinarritutako ekintzak dira.

6. Europako Gaietarako Zuzendaritzak arlo honetan aholkularitzarako eta funtsak eskuratzeko planteamendu batzuk egin al ditu? Zen neurri, proiektu eta kopuru aurreikusi ditu?

Europako Gaietarako Zuzendaritza Nagusiak Europan proposatzen diren deialdi eta proiektuei buruzko informazio eta aholkularitza lanak egin ditu. Orain arte, proposatutako proiektuak beste

arlo batzuetara begira egin dira. Hala ere, Europa-ko Batasunaren azken zabalpenaren ondorioz, justizia eta barne arloari garrantzia eta aurrekontu handiagoa emanen zaizkiola dirudi.

7. Zenbat epaitegitan daude banda zabaleko konexioak?

Gaur egun Nafarroako bost epai-barrutietako herriburuetako egoitzetan dauden organo judizial guztiek banda zabaleko konexioa dute.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko ekainaren 10ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, landa eremuak informazioaren gizartean sartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak landa eremuak informazioaren gizartean sartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2004ko maiatzaren 24ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2004ko ekainaren 15ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du landa eremuak informazioaren gizartean sartzeari buruz. Hona hemen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren erantzuna:

1. Ba al da Nafarroan landa-eskualderik "TRAC lineak" deritzen bitarteko komunikazioak soilik dituenik? Horren ondoriozko kalderen bat jasaten duen establezimendu industrialik, nekazaritza-elikagaien arlokorik eta turistikorik ba al dago?

Bai. Jakina denez, lehen Zientzia eta Teknologia Ministerioa zenak (orain Industria Ministerioa) plan bat ezarri du TRAC teknologia analogikoaren

migrazioarako, LMDS, GPRS satelite teknologia eta kobrezko parean oinarritutako konponbideen bitartez. Ez dakigu soilik TRAC teknologia duen establezimendu industrialik, nekazaritza-elikagaien arlokorik edo turistikorik ba ote dagoen.

2. Landa-eskualde guztiek eskueran al daukate banda zabaleko sarbidearen zerbitzua? Ezezkoan, zein heinetan ez daukate zerbitzu hori eskueran, eta zein eskualdetan?

Ez. Gaur egun, banda zabaleko teknologia Nafarroako 110 herritara iristen da, eta herritarren %89 hartzen ditu. Horretaz gain, esan behar da RSDI teknologia Nafarroako herritarren %97ren-gana iristen dela.

3. Internet zein heinetan dago sartua nekazari eta abeltzainen artean? Zer neurri aurreikusi ditu departamentuak Internet sustatu edo indartzeko?

Gaur egun, Nafarroako Estatistika Institutuak jasotako adierazleen artean ez dago berariazko bat ere nekazari eta abeltzainen artean Internet zein heinetan sartuta dagoen azaltzen duenik.

Nekazaritza Departamentuak hartu behar dituen neurriak Nafarroako Gobernua prestatzen ari den informazioaren eta telekomunikazioen gizartea hedatzeko.

4. Landa-eskualdeetako sarbide publikoko guneak ezartzeko ekintzarik egin al da?

Toki Administrazio Departamentuak, Informazioaren Gizartea Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiarekin eta Tuterako Udalarekin lankidetzan, Tuterako ziberzentroa diseinatu eta ezarri. Lankidetzaren horren xedeen artean aipagarria da etorkizunean errentagarria izan daitekeen telezentro mota zehazteko ezagutza nahikoa lortzea. Beste erkidego batzuetan telezentroekin izandako esperientziei begiratzen badiegu, ondoriozta daiteke agortu egiten direla, baldin eta kudeaketa planak ez baditu alderdi anitz hartzen (sarbidea, prestakuntza, enpresen mundua, etab.). Halaber, Civitanen ezarpenean ere parte hartu dugu. Zentro horretan diziplina anitz jorratzen dira, eta bertan telezentroa diseinuaren eta kudeaketaren elementuen artean integratzen da.

Era berean, udal zerbitzuen berrikuntzarako eta kalitaterako laguntzen deialdiaren bitartez, Auritz-Aurizberriko telezentroa finantzatu da.

Nafarroako Gobernuak Interneterako sarbidea izateko guneak dauzka liburutegi publikoen sarean.

Infolocalen kioskoak Interneterako sarbidea izateko guneak ezarri ahal izateko prestatuta daude, entitate bakoitzak egoki ikusten dituen mugekin: web orrietara sarrera mugatzea, udalak emandako txartelak erabiltzea etab.

5. Departamentua partaidetzan ari al da Red.es entitate publikoarekin? Baiezkoan, adieraz bedi noiz, zer ekimen edo programaziorekin eta abar.

Lehen aipatu bezala, Informazioaren Gizarterako Zuzendaritza Nagusia da departamentuak eta administrazioak koordinatzeko eskumena duena. Hala eta guztiz ere, 2003an deialdi bat egin zen departamentu honen partaidetzarekin, "Internet landa eremuan" programan sarbidea izanen zuten entitateak hautatzeko (2003ko 113. NAO).

6. Populazio urriko udalerrietan telezentroak jartzeko asmorik ba al dago?

Gai horri dagokionez, Nafarroako Gobernuaren eginkizuna udalen ekimenarekiko subsidiarioa da. Horrela, beste erakunde batzuekin batera zenbait jarduketa egin baditzake ere, Nafarroako Gobernuak batez ere liburutegi publikoen eta informazio kioskoen bitartez jardunen du.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2004ko ekainaren 8an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilaria: José Javier Echarte Echarte

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»
Urtebete 42,35 euro	Navas de Tolosa, 1
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,10 »	31002 IRUÑA
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,27 »	